

altza

Kale Hezitzaileak: «Gazteak pozik egotea dugu helburu»

Altzako Kale Hezitzaileek hiru urte t'erdi daramatzate auzoan lanean. Maribel eta Marijek San Martzial kalean dute beraien lokaia, Udaletxe ondoran alegia eta 14-20 urte bitarteko gazteez arduratzen dira. Donostian, Kale Hezitzaileak Altzan bakarrik dauzkagu.



Maribel eta Marije psikologoak gazte talde batekin San Martzial kaleko bere lokalean lanean.

ASKOK GALDETUKO DIZUE ZEINTZU DIREN ETA ZERTARAKO DAUDEN KALE HEZITZAILEAK, EZTA?

Raquel, hemen izaten dugun 14 urteko gaztetxo batek dioen bezala, Kale Hezitzaileak zurekin hitzegiten duten eta laguntzen saiatzen diren lagunak dira, zure arazoez hitzegin dezakezu beraiekin, eta beraiek, ahal badute, zure burua antolatzen eta gehiago pentsatzen laguntzen dizute.

ZEIN DA ZEHAZKI KALE HEZITZAILEEN IANA?

Ez dugu gure lana lokal honetara mugatzen. Guk nahi duguna da Altza eta inguruetan antolatutako ekintzetan gure gazteek ere parte hartzea: Casares Kultur Etxean, Gazte-Lekuan, Topa Lekueta,

Polikiroldegian... Toki guzti horietara gerturatu nahi ditugu. Askotan gazte hauek iraganean egindakoagatik ezin baitute bertan sartu.

KALE HEZITZAILEAK IZANIK KALEAN AL ZABILTZATE EGUN OSOAN GAZTEEKIN?

Ez, begira, gazteak ezagutzeko badauzkagu errekurso propioak nahiz eta esan daitekeen askotan kalean ere ezagutu ditugula.

Gazte gehienak Lanbide Tailerretan, Gizarte Laguntzaileek esanda edo jendeak dioenarekin ezagutzen ditugu.

ARAZOAK DITUZTEN GAZTEAK IZATEN DIRA, NOLA TRATATZEN DITUZUE?

Uste dugu interesgarriena dela zerbait behar duten gazteak guregana

hurbiltzea eta ez alderantziz. Gure erlazioetan ez dago ordutegi eta arau finkorik. Gure helburu nagusia gazteak pozik egotea da, lehenik bere buruarekin eta bigarrenik gizartearekin.

Baina helburu hau lortzeko ez dugu gure lana aholkuetan oinarritzen. Gazteen arazoak entzun ondoren, ahal badugu laguntzen ditugu eta bestela entzute lana bakarrik egiten dugu. Ez ditugu gazteak galderez bonbardatzen, benetan interesatzen zaiguna gaztea da eta hori nabaritzen dute.

ZEIN DA KALE HEZITZAILEEN AURTENGO EGITARRAUA?

Lehenengo urtean sortutako futbol taldearekin aurrera goaz, talde hone-

tan parte har dezakete udal lanbide tailerretan ez dauden gazteak. Futbol taldeak Anti-J izena hartu zuen eta ekintza honen helburua gazteak kirolarekin kontaktu zuzena hartzea izan dugu, gero nahi izan ezker beste futbol txapelketetan parte hartu ahal izateko...

Beste hainbat ekintzetan gazteak parte har dezaten ere saiatzen gara bai Askagintzako soldaketa tailerretan, Kemen lorategiko ikastarotan edo Goiz-Argin josten ikasten. Hezkuntza sistema hauek talde txikiagoak onartzen dituzte eta gazteenganako presioa Udal Lanbide Tailerretan baino txikiagoa da eta horregatik gomen-dagarri iruditzen zaizkigu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 321267)